



LIBURUA

Nola hil nahi duzu? Benetako galdera da



EREIN

HERIOTZARI AURREZ AURRE BEGIRA

OSKAR GAZTELU

EREIN, 2022

 AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Izenburu zuzena du liburuak. Interpretazioetatik urruti, irakurri bezain azkar dakigu heriotzari buruz hitz egingo digula autoreak. Aurkibidea irakurrita saiakera baten aurrean gaudela ohartuko gara. Baina liburuak irakurtzen hasi eta berehala konturatuko gara Oskar Gazteluk bizitza eta heriotzarekin izan dituen esperientzia propioak ere kontatuko dituela bertan (lehenengo esperientzia, bigarren esperientzia eta hirugarren esperientzia kapituluetan bereziki). Teoria eta esperientziak emandako ezagutza tartekatuz liburu osoa egitea lortu duela uste dut. Sakona eta arina da aldi berean.

Liburuaren alde teorikotik bi azpimarratuko nituzke: heriotzaren gaiak liluratu egiten nau. Liluratu egiten nau heriotza tabutik ateratzeko edozein ahaleghinek. Denboran ez hain urruti egin izan diren errituen inguruko me-

moriak ere bai. Hil osteko zeremoniak kapitulu munduan barrena kolektibo desberdinek egin izan dituzten zeremonien inguruko deskribapenak jaso ditu autoreak, tartean Euskal Herriko errituen informazioa.

Hiltzen laguntzen kapitulu beharrezkoa da. Erreferentzia ezagunak, izen ospetsuak eta informazio baliagarria ematen du kapitulu honetan. Eta literaturan heriotza nola errepresentatzen den aztertzen du 8. kapitulu. Aipatzen dituen material batzuk ezagutzen ditut, baina etxeko lanak apuntatu ditut ezagutzen ez ditudan irakurtzeko. Deformazio profesionala izango da.

Autoreak bere esperientziez hitz egiten duenean gertutasuna nabari dugu. Lehenengo pertsona idazteak enpatia pizten digu, gure oroitzapenetan arakatzeko gonbidapen moduko bat da-

eta. Amaren baserria nola hustu zuen kontatzen duenean Lydia Flem autorearen *Comment j'ai vidé la maison de mes parents* (Nola hustu gurasoen etxea. Alberdania, 2004) liburuak ekarri dit gogora. Gurasoen etxea hustu behar duen balio sinbolikoari fokua jartzen dio honek ere.

Estilo errazean heldu dio idazleak gai sakon eta konplexu bati. Esaldi motzak erabiltzen ditu, zuzena da. Baina ez du horregatik goxotasuna eta berotasuna galtzen liburuak. Gauden momentuaren arabeko emozioak esna ditzake. Eta hausnarketarako aproposa da.

Hau idatzi bitartean jakin dut Gazteluk poesia liburu bat ere argitaratu zuela 2023an: *Baserria (h)uz(s)ten*. Konfiantzazko liburudendan eskatu dut jada. Eta iritsi bezain azkar gogotsu helduko diot irakurketari. ●